

DIRU SARRERAK

Hasierako inbertsioa:

Nahiz eta Sozietate Anonimoa izan, kapital guztia harpidetuta eta despoltsatuta utziko dugu.

Idea sortu zitzaigunetik **inbertsio desberdinak** egiten joan gara. Horren bidez ekarpen handiak izan ditugu denboran zehar, guztira 40 000€, gure enpresan inbertituko ditugunak. Gainontzeko 20 000€ gure **aurreztutako dirutik** aterako dira, denok egin dugulako lan proiektu hau hasi baino lehen. Laburbilduz, enpresaren hasierako inbertsioan jarriko ditugun 60.000€-ak inbertsioen bidez eta aurreztutako diruaren bidez lortuko ditugu.



Diru iturriak:

Gure diru iturri nagusia gure web orrialderen bidezko **salmentak** dira. Salmenta horiek ezberdinak izango dira. Alde batetik, txipak solte salduko ditugu, eta beste aldetik, txipa barneratuta duten produktuak salduko ditugu (txip+produktu).

Gainera, diru asko gastatzeko prest dauden bezeroek, hau da, erosketa handia egingo dutenek, produktu-sorta batzuk izango dituzte eskura, diruzko zerbait aurrezteko. Horrek pizgarri gisa balio du lote horiek eros ditzaten, eta, aldi berean, produktu gehiago saltzeko aukera ematen digu, bezero bakoitzeko lortutako diru sarrerak handituz.

Aliantzaren atalean azaldu dugunez, Kiwokorekin lan egingo dugu, gure produktuen salmenta eta bezeroak handitzeko.

Batetik, guk haiei loteka erosiko dizkiegu haien produktuak eta produktu horiei txipak ezarriko dizkiegu. Txipa gure produktu propioa denez, balio erantsi nahikoa ezarriko geniokeen mozkinak izateko.

Bestetik, gure txipak beraien saltokietan salgai jarriko dituzte eta salmenten **komisio** bat jasoko dugu.

Alzheimer elkarteari diru ematea borondatezkoa da, guretzat gaixotasun honen aldeko ikerketei laguntza ematea oso garrantzitsua delako. Badakigu hori egiteagatik ez dugula diru-iturririk izango, hala ere sozietate zerga ordaintzean, **hobariak** izango ditugu.

Diru iturriak

